

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Azaroak 23  
Igandea  
Alea: 946  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## SANTA ZEZILIA - MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA GAUR

### "Musika Eskola kantera ona da, baina oraindik ere Hernanitik kanpo bilatu behar izaten ditugu musikariak"

■ Kontzertua gaur izango da eguerdiko 13:00etan Udaletxeko arkueetan ■ Denetarik entzun ahal izango da: pelikuletako soinu bandak, pasodoblea, zarzuela eta lau urtaraoak (euskar koadroak).

SANTA Zezilia egun garrantzitsua izaten da Hernaniko bandarentzat, musikarien eguna den horren inguruan bandak kontzertu berezia prestatzen baitu. Kontzertua gaur da Udaletxeko arkueetan eguerdiko 13:00etan.

Manuel Sagarna eta Zipri Otxandorena dira bandako zuzendaria eta zuzendari ordea. Biek urte asko daramakite bandan: Sagarnak 53 urte eta Ziprik 30. Ziprik saxoko goi mailako ikasketak egin ditu eta Sagarna Hernaniko akademia batean hasi zen aspaldian saxoa ikasten, baina, berak dioen bezela, urteen poderioz ikasi du orain dakiena.

#### ■ Zenbat musikarik osatzen duzue banda?

Hernaniko Musika Banda 40 bat musikarik osatzen dute. Bandan dauzkagun musikariak haizezko instrumentuak jotzen dituzte alde batetik, bai egurrezkoak eta bai metalezkoak. Eta bestetik, klase askotako perkusioak ditugu. Guztira 11 bat instrumentu ezberdin dira.

#### ■ Maila haundia al dago musikarien artean?

Herriko banda dela eta profesionala ez dela kontuan harria, maila haundia dago. Askok erdi mailako eta goi mailako musika ikasketak dituzte. Tituloz behintzat ez gabiltza gaizki gure bandan. Bandako kide batzuk gainera Euskadiko Orkestran jotzen dute, Judith Monterok eta Jorge Patxekok esaterako.



Zipri Otxandorena eta Manuel Sagarna.

#### ■ Musikari kantera haundia al dago Hernanin?

Ezin gera kejatu, garai txarra goi mailako ikasketak egin ditugu. Guztira 11 bat instrumentu ezberdin dira. Hernaniko musikariak bandan. Duela 6 edo 8 bat urte, Musika Eskola hasi zenetik kantera haundia izan dugu bertan, baina hala ere oraindik beste herrietara jo behar izaten dugu musikariak lortzeko. Batez ere haizezko instrumentu bajuak lortu nahi ditugunean.

#### ■ Zer iritzi duzue kontzertuetarako eta entsaioetarako dituzuen lekuei buruz ?

Gu nahiko gustura gaude. Milagrosan entsaitzen dugu beste hainbat bandarekin batera. Kontzertuak Milagrosatik kanpo egiten ditugu: Sandiusterri, noizean behin Biterin, arkueetan eta kalean. Tilosetan ere egin nahi genituzke emanaldiak baina kioskoa txikia geratzen zai-gu, eszenarioan ez baikera kabitzen 40 musikari instrumentu guziekin batera.

#### ■ Jendeak ze musika mota entzuten du gustura?

Badaude zarzuelako piezak oso gustoko dituzten entzuleak. Eta gero gauza berri-

goak eta modernoagoak gus-toko dituen beste entzule batzuk ere bidaude. Adibidez, pelikulen soinu bandak eta horrelakoak.

#### ■ Urtean zehar egiten dituzuen kontzertuetatik zein dira arrakasta gehienetan lortzen dutenak?

San Joanetan jende asko biltzen da kontzertuetan: preludioan, dianan, San Juan bezperako pasakallean jendea asko unkitzen da. Gabonetan egiten dugun Olen-tzerotako pasakallean ere jende asko egoten da.

#### ■ Ze prestatu duzue gaurko kontzerturako?

Pasodoble batekin hasiko degu saioa. Hiru pelikulatako soinu banda joko degu eta zarzuela baten selekzioa ere egin degu. Bukanetako 4 urtaroeztatik, euskal koadroa deitzten den horretatik, udaberria eta udara joko ditugu. □

#### HERNANIKO MUSIKA BANDA

##### ■ Sortu: XIX mende erdialdean.

##### ■ Ekitaldi garrantzitsuenak:

- San Juanetako emanaldiak: preludioa, pasakallea, diana, San Juan eguneko kontzertua.
- Sandiusterriko Gabonetako kontzertua.
- Santa Zeziliako kontzertua azaroan.
- Apirileko Biteriko kontzertu monografikoak
- Agenda: Gabonetako kontzertua eta datorren urteko apirila hasieran pelikulen soinu bandei buruzko kontzertu monografiko Biterin.

Bildu Hernanik herriko taldeekin bilerak hasiko ditu Udal politika eta Udal Aurrekontuei begira

BILDU Hernanik 4 bilera konbokatu ditu datorren astelehenetik ostegunera. Bileretan bi gaiei buruz hitz egingo da funtsean: Hernaniko Udal politikaren egoera; eta 2004ko Udal Aurrekontua.

Bilera bakoitzean talde eta elkarte batzuekin hitz egingo dute: astelehenean Auzo Elkarteak daude konbokatuta, 20:00etan Biterin; asteartean Kultura eta Euskeraren inguruko taldeak, 20:00etan Larramendi 11ko lokaletan; asteazkenean Kirol talde guztiak, 20:00etan, Biterin; eta ostegunean Gizarreta arloko talde guztiak, 20:00etan Biterin. Herritar guztiak ere deituta daude bilera guztieta.

#### ■ FUTBOLA

### Hernani-Beti Gazte gaur

HERNANIK bi partidu jokatuko ditu gaur, nagusietan. Gorengo taldeak Beti Gazte taldearen kontra du 17:00etan Zubipen. Emakumezkoen ligan berriz, Hernanik Deban jokatuko du, Amaikak Bat taldearen kontra, gaur 15:30etan. □

#### ■ ERRUGBIA

### Getxo-Hernani gaur

HERNANIKO Liga Nazionaleko taldeak Getxo Artea taldearen kontra jokatuko du gaur, Getxoren zelaian. Hernaniarrek partidu guztiak irabazi dituzte orain arte, eta lehendabizikoak daude sailkapenean. Faduran, 12:00etan. □

#### Inzineradoraren kontrako kontzentrazioa gaur

ARNASA Plataformak Inzineradoraren kontrako kontzentrazioa eta manifestazioa egingo ditu gaur Urnieta, 12:00etan. Urnieta eta inguruko herrietako jendeari azaltzeko dei egin dio plataformak. □

**HORTZ KLINIKA**  
*Garmendia*  
  
Odontologia orokorra  
Txirrita kalea 13 -1<sup>a</sup> ezk.  
Tel.: 943 55 34 92

**URMAR BRIKOLAJEA**  
  
Oztaran auzoa 13  
Tel.: 943 552 616  
20.130 URNIETA


**BIKAIN AKADEMIA**  
abenduaren 1ean zabalduko dugu  
- Talde txikiak  
- Arreta pertsonala  
- Ordutegi malgua  
- Kurtso guztiak  
- Lehen eta bigarren hezkuntza  
- Batxillerria  
- Unibertsitatea  
Zure ikasketatan lagunduko dizugu  
Kardaberaz, 56-58 behe B  
626 68 38 96 / 679 66 41 81

  
Arantza Mendia  
Koldo Mikel  
Perez  
Ramon Mendia  
Ibai-mendi  
Marka onenak dauzka:  
TRANGO  
TERNUA  
COLUMBIA  
THE NORTH FACE  
SALOMON  
BOREAL  
TUCKLAND  
KAMET  
CHIRUCA  
Nafar kalea 24 - 943 333724 - Hernani / Nagusia 18 - 943 590372 - Andoain

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkartea. Errakazioa: argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak: J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre, N. Legarreta eta A. Zerain. Egoitza: Larramendi 11. ☎: 943-330899. Faxa: 943-336306. Ezposta: [kronika@topagunea.com](mailto:kronika@topagunea.com). Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.

## Elkarte arteko mus txapelketa final laurdenetan

ELKARTE arteko mus txapelketa pasa den astean hasi zen Karobi Elkartearen. Oste-gun honetan jokatu ziren au-reneko faseko azken partidak. Orain bigarren fasea jokatuko dute sailkatu diren bikoteek. Hemendik aurrerako partidak izango dira: azaroaren 25ean Urmia A /Gure Txoko A eta Elurtxori A/Txantxangorri A; azaroaren 27an Karobi B /Gure Txoko B eta Peña Otaño B/Urmia B. Final au-reneko abenduaren 2an jokatuko da eta finala abenduaren 11ean. Sari banaketa afaria aldiz, abenduaren 13an izango da. Partidak gaueko 21:30etan dira. □



Ordago ttikira!



Hernaniko Musika Bandak eta Txistulari Bandak eskaini zizkieten musika doinuak omenduei.


## Berrondo anaiei omenaldia egin zieten ostiralean Hernaniko Musika Bandan 25 urtetan aritzearagatik



Jose Ramon Berrondo amarekin batean omenaldian.

LUIS Berrondo zenari eta Jose Ramon Berrendori omenaldia egin zieten ostiralean Udal-lexean. Urtero egiten zaie omenaldia Bandan 25 edo 50 urte eman dituztenei. Zoritxarrez Luis Berrondo pasa den urrian hil zen kotxe istripu baten ondorioz eta haren amak jaso zuen hari ematekoan zen plaka. Omenaldian Txistulari Bandak egin zien harrera pleno aretoan bildu zen jendetzari eta Musika Bandak Bachen Brandenburgoko 6garren kontzertua eskaini zion familiari eta Luis Berrendori. □

**Íñigo Royo Manterola**  
Kiromasaia Naturopatia  
Reflexología Homeopatía  
Auriculoterapia Iridología  
Arazo neurologiko eta  
bizkar hezurrekoen konpontzea  
Sta. Barbara 42 - 2.esk. - 626 807 633



## HITZ BITAN

### ✓ WATERPOLOA

**Hernaniko taldeak elkarren kontra.** Hernani Ak Hernani Bren kontra jokatuko du gaur eguerdiko 13:00etan Hernaniko igerilekuaren. Hernani A lehenengo dijua jokatutako 3 partiduak irabazita eta Hernani B 5garren dijua, partidu bat irabazi eta 2 galdu.

### ✓ BOLEIBOLA

**Getxoren aurka ariko dira neskak gaur.** Gaur arratsaldeko 17:30etan neskak Getxoko Aixerrotako taldearen aurka ariko dira. Neskek lehen maila autonomikoan dabiltsa eta azkeneko partiduak galdu egin dituzte. Ia gaurkoan zorte hobea duten.

### ✓ BERTSOA - GIPUZKOAKO TXAPELKETA

**Iñaki Zelaiak final erdia du gaur Zarautzen.** Gipuzkoako Txapelketako bigarren final erdia gaur jokatuko da Zarautzen, eta bertan izango da, besteak beste, Iñaki Zelai Hernaniarra. Iñaki Zelai final erdiatarako sailkatua zegoen, aurreko Gipuzkoako Txapelketako finalean egon zelako, beraz, gaur izango du aurtengo txapelketan bere lehenbiziko saioa. Parean berriz, beste bost bertsolari izango ditu, aurreko saioetatik indarrean datozenak: Ekaitz Goikoetxea, Aitor Sarriegi, Nahikari Gabilondo, Iñaki Gurrutxaga eta Jokin Uranga. Final erdiatiko saioetan lehenengo gelditzen direnak zuzenean pasako dira finalera eta beste bostak puntuen bidez sailkatuko dira. Saioa, gaur, 17:00etan, Zarauzko kirolegian.

### ✓ DONOSTIAKO MARATOIA

**Donostiako XXVI garren maratoia gaur.** Gaur goizeko 09:00etan izango da maratoia. Aurten ere Hernaniko hainbat korrikalarik egingo dituzte maratoiak dituen 42 kilometro eta 192 metroak: Ibon Iriondo, Eva Esnaola, Ketxus Garin... Roxario Pikabea zen Hernaniko faboritoetako bat baina azken orduan ez ateratzea erabaki du, lesioa medio. Eva Esnaolak ere ondo ibiltzeko aukera ditu, iaz bigarren egin baitzuen emakume beteranoetan. Maratoiaz aparte maratoi txikia ere izango da gaur eta han ere hernaniar askok hartuko du parte.

### ✓ AEK EUSKALTEGIA

**Urdazubira gaur.** AEK euskaltegiko ikasle eta irakasleak Urdazubira joango dira gaur, egunpasa. Hernani eta Astigarragako euskaltegietakoak joango dira, 09:00etan Atsegindetik abiatuta.

### ✓ ZINEA

**Bi pelikula gaur Biterin.** Biteri kultur etxearen bi pelikula botako dituzte gaur. *Papa Canguro* pelikula botako dute arratsaldeko 17:00etan; eta *Hollywood: departamento homicidios* arratsaldeko 19:30etan. □

### IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. 2 egunetan bertan egin beharko luke lo: 943 55 64 39 (20:00etatik 22:00etara deitu)

Furgoneta salgai. Renault Traffic-a. Interesatuek: 943 550317

Íñigo Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta vertebral, naturopatia, masajea, reflexologia, auriculoterapia, ...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

#### + FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892
- Gauzez: Gil  
Lasarte. Nagusia 24  
☎ 943 361529

## Hernaniko Kronikako laguntzaile izan nahi?

Urtean 30 eurogatik egunero **kronika** dohainik

Telefonoz hartuko dizkizugu datu guztiak:

☎ 943 330899 - 656 703814

Bonoa zeuk bete nahi baduzu, jaso leku hauetan: Conde (Urbia), Zinkoenea, Iruretagoiena (Kale Nagusia), Kronika (Larramendi 11) eta Dobera (Larramendi 11)